



**8. Oñatiarren musika**  
**SEKUENTZIA DIDAKTIKOA**

*\*Oñati alkarregaz ezaguketako\**

## 8. Oñatiarren musika

### MUINA

- Helburuak
  - Orokorrak
    - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako Araotzen jaiotako Primi Erostarberen bizitza ikasiko dute eta bere auzoan jasotako kantuak eta kontuak ezagutuko dituzte. Gero, gela denak babtera kantua ikasi eta interpretatu egingo dute, dena bideoan jasoz.
  - Espezifikoak
    - Primi Erostarberen biografia ezagutzea
    - Kantuen atzean mezua eta historia dagoela jakinarazatea eta berau lantzeko gaitasuna garatzea.
    - Euskal Herriko erromerietan emakume batzuek izan zuten garrantzia azpimarratzea.
    - Araotz eta bertako kontuak gehiago ezagutzea.
    - Transmisioaren garrantziaz jabetzea eta kantuek horretarako duten gaitasuna nabarmentzea.
    - Testigantzak entzuteko eta ulertzeko gaitasuna lantzea.
    - Talde handian lan egiteko gaitasuna lantzea.
    - Iritziak emateko eta besteen errespetatzeko gaitasuna garatzea.
- Azken xedea edo ekoizpena
  - Azken xedea izango da Araozko herritarrengandik jasotako kantu bat ikasi eta gela osoak batera interpretatzea, jendaurrean edo bideoan jasoz.
- Ikaste taldea
  - Hirugarren ziklorako pentsatuta dagoen sekuentzia da, printzipioz.

## **SEKUENTZIA DIDAKTIKOA**

### **HASIERA FASEA**

- **1. jarduera → Abestiak**

- Helburua: Gaian murgiltzeko musikaren inguruko elkarrizketa izatea, eta era berean gaiarekiko aurrezagutzak piztea.

- Sekuentzia honetan Oñatiko musikaren inguruan hitz egingo dugu eta Oñatiko musikari batzuen inguruan baita ere. Horregatik, gaian sartzeko, galdera batzuk egingo dizkiegu talde handian eta asanbladan jarrita, musikaren inguruan hitz egingo dugu. Hauek dira egin daitezkeen galderetako batzuk: *Zein musika entzuten duzue? Nongoak dira artista horiek? Zer kantatu gustatzen zaizue gehien? Zer esan nahi du letra horrek? Jartzen duzue arreta letran?*

-Galdera hauen bidez, egunerokoan inertziak egiten duten zerbait kontzientziara ekarriko dugu agerian utziz hainbat gauza: Musika mota bakoitzak mundua ikusteko modu bati erantzuten diola, abesti bateko letra batek istorio bat gordetzen duela... Finean, abesti batek atzean gauza asko gordetzen dituela; ez dela neutroa.

-Azken baieztapen edo ondorio horiek oinarritzat hartuta asanbladan edukiko dugun elkarrizketa hori bideratu egingo dugu interesatzen zaigun lekura heltzeko. Eta ikusteko aipatutakoak indarra baduela, abesti baten atzean zer gordetzen den ikertuko dugu denok batera. Hori baina, hurrengo jardueran egingo dugu.

- **2. jarduera → Gaian murgiltzen.**

- Helburua: Abesti baten barruko istorioa deskubritzea, gure historia ikasten hasteko.

-Abesti baten barruan gauzak gordetzen direla ikusteko, gelan Huntza taldearen "Harro gaude" abestia jarriko dugu. Abesti ezaguna da eta plazandreen inguruan hitz egiten du, izen batzuk esanez. Eta izenetan fijatzeke esango diegu eta ea inor ezagutzen duten galdetuko. Segur aski ezetz esango dute.

-Bada, hau galdetuko diegu: Nola lot dezakegu abesti hau Oñatirekin? Saio amaieran hau eginez gero, etxean galdetzera animatuko ditugu.

-Haurren bat erantzunarekin etorriko delakoan, galdetuko diegu ea zerbait argitu duten. Eta hala da, bai: Abesti horretan aipatzen den plazandretako bat oñatiarra da: Primi Erostarbe.

- **3. jarduera → Primi Erostarberen biografia**

- Helburua: Primiren biografian sakontzea eta oinarritzko ezagutza batzuk eskuratzea.

-Primiren bografiaren testua zatikatu eta irakasleak egindako talde txiki bakoitzari biografia osoaren zati bat emango dio. Irakurri eta landu egin beharko dute. Hau egin eta gero, talde handian bakoitzaren zatia azaldu eta ordenatu egin beharko dute. Gainera, zati batzuetan, informazio gehigarri moduan, bideotxo batzuk daude eta gelan ikustea oso gomendagarria da.

-Biografian Araotz aipatzen denean, komeni da ideia edo informazio hori behin eta berriz azpimarratzea, izan ere sekuentziako hurrengo jardueretan horri helduko diogu, auzo horretan ondare dezente jaso baita, eta duen berezitasunak atal oso bat merezi baitu.

- **4. jarduera → Araotz**

- Helburua: Araozko informazio orokorra ezagutzea, baita bitxikeria batzuk ere.

-Ikusi dugun moduan, Primi Erostarberen izaera ere ez zen ohikoena eta askotan esan ohi da Araotzekoek badutela nortasun propioa. Honi azalpena ematen dion adierazpenik bada liburuetan. Orduan, hurrei esango diegu Primiren izaera ulertzeko, komeni dela bere auzoaren inguruko informazio oinarri-oinarritzkoa jakitea. Horretarako testu bat dago eta guztiok batera irakurriko dugu, paragrafoz-paragrafo komentatuz.

-Gainera, litekeena da haurren bat edo familiakoren bat Araozkoa izatea edo Araotzen inguruko zerbait entzun izana. Beraz, etengabe galderak egingo ditugu eta hurrek dakitena plazaratzeko espazioa utziko diegu.

-Azpimarratuko dugun ideietako bat izango da, Araotzen ondare asko gorde dela eta horren isla badela liburu askotan auzoari egiten dioten erreferentzia.

## GARAPEN FASEA

- **5. Jarduera → Zer gordetzen du kantu batek?**

- Helburua: “Araozko gorazarrea” abestiak atzean gordetzen duena ikastea eta zeharka partiturak irakurtzeko gaitasuna lantzea.

-Aurreko jarduerari jarraipena emateko asmoz, haurrei partitura bat banatuko diegu: “Araozko gorazarrea” izango da kantu horren izena. Behin partitura aurrean edukita jaisteko atalean kantua ere aurkituko dugu eta denok batera entzun egingo dugu partitura jarraituz.

-Entzun ostean ea horren atzean zer istorio ezkutatzen den imajinatu beharko dute. Behin honi buruz pixka bat hitz eginda, jaisteko dagoen txostenean abesti horren azalpen txiki bat dago, letra orijinalarekin. Bakoitzak bere txostentxo irakurriko du eta letra landuko dugu denok, guztiok ondo ulertzeko.

-Jarduera honetan ulertu behar dute abestietan istorioak sartzen direla eta gauzak kontatzeko modu bat dela. Bistan da: abesti horri esker, Toñitaren historia irakurtzen ari dira, bestela nekez edukiko genuke bere berri. Ideia hauek azpimarratzea oso garrantzitsua da.

-Honez gain, musika gaitasunak lantzeko ere erabil daiteke hau. Partitura irakurtzeko erraz samarra da, eta solfeoa praktikatzeko, figura musikalak erreparasatzeko... ere balio du.

- **6. Jarduera → Musikaren *trukua***

- Helburua: Hiru Trukuren lana ezagutzea, tartean Ruper Ordorikarena eta Hiru Trukuren abesti bat ezagutzea.

-Aurreko jardueran Araozko kantu bat ezagutu dugu eta orain beste bat ezagutuko dugu, Euskal Herrian oso ezaguna, gainera: “Soldadu sartu nintzan” jaistekoen ataldean beharrezko guztia dugu. Hau ondo testuinguratzeko, baina, azalpen batzuk emango dizkiegu haurrei asanbladan eserita egongo garela aprobetxatuz:

*“Abestiak jasota egotea oso garrantzitsua da, baina abesti batek liburu batean ez du ezer egiten. Abeslarien nahia eta helburua izaten da abestiak zabaltzea, entzutea, bertsioak egitea, jendaurrean jotzea... finean, kantuak bizirik mantentzea. Zertarako? Abesti zaharrak berriro erre jendearen ahotan ipintzeko eta kantatzeko. Horretan esperientzia badu Oñatiko abeslari batek. Bera Ruper Ordorika da eta “Hiru Truku” proiektua jarri zuen martxan. Kantu zaharrak jaso zituen eta diskoan grabatu eta kontzertu ugari jo zituen eta modu horretara asko zabaldu ziren kantu zahar hauek, tartean Soldadu Sartu Nintzan.”* . Hau esan ostean bideoa jarriko diegu abestia entzun dezaten.

-Horrekin batera, txostentxo (abestiaren letrarekin) eta partitura ere aurki dezakegu jaistekoen txokoan. Txostena irakurri egingo dute. Partitura banatu ostean, abestia berriro entzungo dute, baina oraingo honetan partitura jarraituta.

-Hau egin eta gero, erronka bat proposatuko diegu hurrei: “Eta orain guk hartzen badugu lekukoa eta geuk ematen badiogu bizitza kantu horri?”. Hau prestatzeko hurrengo jarduera erabiliko dugu.

## EKOIZPEN FASEA

- **7. jarduera** → **Soldadu sartu nintzan.**

- Helburua: Abestiaren interpretazio bat egitea gela guztiak batera.

-Jarduera honetan bizia emango diogu “Soldadu sartu nintzan” abestiari. Araotzen jasotako ondarea da eta gainera Euskal Herri mailan doinua oso ezaguna da. Beraz, bertsioak egiten hasteko, kantu egokia da.

-Interpretazioa egiten hasteko letrari erreparatuko diogu. Ikusi dugun moduan, abesti baten mezuak berebiziko garrantzia du. Letra irakurtzen badugu, ohartuko gara garai bat deskribatzen duela eta ez da, agian, berdintasunaren betaurrekotatik begiratuta egokia. Hala ere, letra hori garaiaren deskribapen modura hartuz gero, hor ere ondare oso garrantzitsua aurkitu ahal dugula ohartuko gara. Lehengo garaiak nolakoak ziren jakitea ezinbestekoa baita orainaren norabidea markatzeko eta nora ez dugun itzuli nahi jabetzeko. Beraz, letra berdin mantentzeak ez du esan nahi transmititzen ari garen baloreak aldrebesak direnik... kontzientzia kritikoa bultzatzen ariko baikara horrela.

-Hau landu eta gero, guztiok abestia ikasiko dugu. baina berau jotzeko modu asko daude eta ziur gela barruan taldetu pila bat dagoela: abeslariak, gitarjoleak, dantzariak, antzezleak, perokusiojoleak... Talentu hauetaz guztietaz baliatu behar gara abesti horren interpretazio on bat egiteko. Bakoitzak bere talentutik, abestia interpretatzeko saiakera egingo du bere etxean.

-Gero, gelako denbora honi forma emateko erabiliko dugu. Musikari eta abeslarien lana argia da, baita dantzariena ere. Saltsa pixka bat sartzeko, aktoreren bat Primi Erostarbe izan daiteke eta abesti horren interpretazioa beraren irrintzi batekin has daiteke. 3 minutuko festa txiki bat antolatzea da helburua.

-Talde handi batean aritzeak etengabe erabakiak hartzera behartzen zaitu eta lan hau oso dibertigarria eta arina izan daitekeenez, gaitasun hori lantzeko eta irakasle moduan hor arreta jartzeko aukera paregabea da.

- **8. jarduera** → **Entsegu orokorra**

- Helburua: Aurkezpen eguna zehaztea eta entsegu orokorra egitea.

-Jarduera honetan aurkezpen eguna zehaztuko dugu eta hau hezkuntza komunitateari jakinaraziko diogu, nahi duenak ikusteko aukera izan dezan.

-Honez gain, entsegu orokorra egingo da. Arropa bereziak ekarri nahi badituzte horiekin entseatuko dute. Aurkezpen egunean egin behar duten bezala entseatuko dute jarduera

honetan.

-Abestiaren interpretazioa taularatzeaz gain, proiektu osoan zehar egin duten ibilbidearen inguruko hizketalditxo motz bat ere prestatu beharko dute, publikoak uler dezan zer dela eta egin duten hori. Gainera, proiektuari zentzua ematea ere lortuko dute horrela.

- **9. Jarduera → Aurkezpena!**

- Helburua: Hezkuntza komunitatearen aurrean egindako lana aurkeztea.

-Heldu da eguna! Gaurkoan hezkuntza komunitatearen aurrean aurkeztuko dute ibilbidean egindako guztia. Prestaketa lanak egingo dituzte, ikuslegoa artatuko dute... Eta gero... abesten gozatu!

-Honez gain, urduritasunean jarriko dugu arreta. Aurrez hitz egingo dugu sentipenen inguruan eta aurkezpenaren aurretik esango diegu ondo identifikatzeko zer ari diren sentitzen. Urduri sentitzen badira, ziur aski gorputza oso arin sentituko dute eta saiatu beharko dira gorputza lurrean sentitzen; pisutsuago. Modu honetan lasaiago irtengo dira oholtzara. Horretan jarri beharko dute arreta.

- **10. Jarduera → Ebaluazioa!**

- Helburua: Bidearen ebaluazioa egitea.

-Oraingo honetan paper erraldoi batean edo arbelean pentagrama luze bat marraztuko dugu eta asanbladan eserita, gure abesti propioa konposatuko dugu. Berezia izango da, izan ere, bakoitzak nota bat jarri ahal izango du pentagraman eta nota horretan proiektutik gehien gustatu zaiona adierazi beharko du. Horretarako denbora utziko diegu eta bakoitzak bere nota diseinatuko du orri batean, berak nahi bezala.

-Ondoren banan-banan, bakoitzak bere nota moztu ostean, pentagraman itsatsiko du azalpen bat emanaz. Azalpen horretan argitu beharko du zergatik egin duen nota hori eta gogora ekarri duen momentu horretan nola sentitzen zen.

-Eta horrela, guztion artean, gure abestia osatuko dugu! Hori baita aterako dugun ondorio nagusia: Abestiek batu egiten dute. Abestiek historia gordetzen dute, sentimenduak azaleratzen dute, irakatsi egiten dute, erakutsi egiten dute... gure nortasuna gorde eta eraikitzen dute.



## **ERANSKINAK (FITXAK eta JAKINGARRIAK)**

*Atal honetan Araotzen jasotako ipuin bat ere jaso dugu. Arakatu dugun liburuan abestiak ziren protagonista, baina sekuentzian zehar istorioen bat landu nahi izanez gero, Araoztar kantariaren parabola oso gomendagarria da. Bestetik arakatutako liburu eta orri guztiak beherago daude eskuragarri.*

### **ARAOZTAR KANTARIAREN PARABOLA**

Dena dela, Araotzen kantuak, istorioen kontaketak... oso leku handia zuela, kantu eta kontu asko jaso izan baitira liburuetan araoztarren ahotik. Oso ezaguna da, adibidez, "Araoztar kantariaren parabola". Honela dio:

*"Behin ba omen zen kantari ibiltzen zen Araoztar bat. Baina behin, Sandaili eta Jaturabeko haitzartean kantuan ari zela, konturatu zen norbaitek erantzun egiten ziola kantuan. Behin eta berriz; behin eta berriz. Gogaituta, erregearengana joan zen erakustera inguruan ez zela bere moduko kantaririk eta erantzuten zion horrek ez zuela kantari izatea merezi. Eta erregearengana abiatu zen.*

*Bidean oihal-saltzaile batek esan zion arropa horrekin ezin zela erregea bisitatzera joan. Beraz, saltzaileak esan zion berak emango ziola arropa, baina erregeak araoztarrari emandako sariaren erdia berari emateko eskatu zion. Tratua onartu zuen kantariak eta erregearengana joateko bideari ekin zion berriz.*

*Erregeak onartu egin zuen bere bisita eta kantariak bisitaren arrazoia azaldu ostean kantatzen hasi zen. Erregeak hasieran aurpegi ona jarri zuen. Baina kantaria ez zen geratzen eta halako batean gogaituta kantaria zigortzeko agindu zuen, berrehun makilkada emanaz.*

*Araoztarrak, larrituta, esan zion berrehun makilkada askotxo zirela eta tratu bat egina zuela oihal-saltzailearekin. Beraz, ehun makilkada berari eta beste ehun saltzaileari emateko esan zion araoztarrak. Erregeak hori entzun zuenean konturatu zen jende argia bizi zela Araotzen."*

### **BIBLIOGRAFIA:**

Primi Erostarbe. *Wikipedia*. Berreskuratua: [https://eu.wikipedia.org/wiki/Primi\\_Erostarbe](https://eu.wikipedia.org/wiki/Primi_Erostarbe)

e.g. (1984). Primi Erostarbe: Urratzen ez den eztarria. *Argia.eus*. Berreskuratua: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/1001/primi-erostarbe-urratzen-ez-den-eztarria>

Etxeberria, I. (2009). DON.008 Primi Erostarbe. *Ahotsak.eus*. Berreskuratua: <https://ahotsak.eus/donostia/zintak/don-008/>

[-https://ahotsak.eus/donostia/pasarteak/don-008-004/](https://ahotsak.eus/donostia/pasarteak/don-008-004/)

[-https://ahotsak.eus/donostia/pasarteak/don-008-010/](https://ahotsak.eus/donostia/pasarteak/don-008-010/)

Agirrebaltzategi, P. (2021). Araozko kantuak eta kontuak, Bitoriano Gandiaga. Oñati.

Gehigarriak:

- <https://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/3111-soldadu-sartu-nintzan>
- <https://www.youtube.com/watch?v=Gos-MpkPAI0>